

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

5799

EBAZPENA, 2017ko azaroaren 13koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, Begira-publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordearen osaera aldatzeko dena.

Begira-publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordearen ekainaren 11ko 360/2013 Dekretuko 7. artikulua batzorde hori zeinek osatuko duten zehazten du. Halaber, kide horien izendapena Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari dagokiola ezartzen du.

Bokal batek izendapenari uko egin dio eta Euskal Irrati Telebista erakunde publikoan aldaketak izan dira. Ondorioz, aldaketek Batzordearen osaera aldatu dute, eta, horrexegatik, ezinbestekoa da Batzordeko bokal berrien izendapena egitea, eguneratuta gera dadin.

Aurrez adierazitakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Itziar Abad Ramírez andrea, komunikazioan eta berdintasunean aditua, kentzea Begira-publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordeko bokal-kargutik.

Bigarrena.– Maite Asensio Lozano andrea, komunikazioan eta berdintasunean aditua, izendatzea Begira-publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordeko bokal.

Hirugarrena.– Ainhoa Sinde Etxebarria andrea kentzea Begira-publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordeko bokal-kargutik, Euskal Irrati Telebista erakunde publikoaren ordezkartzan.

Laugarrena.– Maria Angeles Parra Salado andrea izendatzea Begira-publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordeko bokal, Euskal Irrati Telebista erakunde publikoaren ordezkartzan.

Bosgarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 13a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.